

Janire Etxabe, euskal sortzailea, artista

Dantza bertikalaren magia

Euskal kultura, emakumearen irudia, memoria historikoa, euskara, eta bertikalatasunaren espazioa modu magikoan hibridatzen dituen euskal sortzailea da Janire Etxabe. Dantza, musika, airetiko mugimenduak, poesia eta plastikotasun berezia nahasten dira bere sorkuntza guztietan. Horietariko bat, *Geure(R)a* ikuskizuna, bi Max sarietarako hautagai izan da. Eta aruten, *Atxine* bakarkako lehen lanaren estreinaldi arrakastatsua egin du.

Etengabeko sorkuntzan aritzen den dantzariarekin aritu gara, bere mundu eta diziplina horretaz gehiago jakin ahal izateko.

—**Dimegaz, Harrobi Dantza Bertikala konpainia... naturan eta hiri espazioetan sormenezko esku-hartze artistikoak... Nondik sortu da hau guztia? Zein izan da bere genesia?**

—2017an, Dimegaz (<https://www.dimegaz.eus/>) sortu nuen Euskal Herriko Naturaguneetan esku hartze artistikoak egiteko eta zabalteko helburuarekin, dantza bertikala eta arte diziplinak espazioen memoria eta kultura herrikoiarekin uztartuz. Guzti hau ikus-entzuzkoen (*Harria Herria, Iretargi*) bidez, baita bakarkako zuzeneko esku-hartzeen bidez ere zabaldu dut, dantza bertikala eskulturarekin edota margoarekin fusionatuz.

Naturan dantza bertikalaren bidez egindako lanak era globalean zabalteko asmoz, 2020an, Harrobi Dantza Bertikala konpainia sortu nuen, espazio arkitektonikoetan zuzeneko esku-hartzeak emanaldien bidez zabalteko.

—**Zer du zuretzat dantza bertikala? Zein da harrapatu zaituen magia?**

—Dantza bertikala nire pasioa da, eta egun nire profesioa. Bartzuetan zaila egiten zait pasioaren eta profesioaren arteko oreka topatzea, eta ezin dut deskonektatu, entrenamenduak, sorkuntzak, lanak, formakuntza... askotan faltan botatzen dut nonbaiten galduta, haize lerro bat topatu, eta bertan zintzilikatu, espazio horrekin bat egiteko, mugimenduarekin jolasteko, disfrutatzeko.

Arnesa eta sokarekin eskalatzeko hasi nintzen. Eskaladari esker, dantza bertikala ezagutu nuen Antoine Le Menestrel eskalatailearen bideo bat ikusita, eta txundituta geratu nintzen. Memento horretatik aurrera dantza bertikalaren fokua jarri nuen.

—**Makina bat pieza koreografiko sortu dituzu airezko espazioan. Nolakoak izaten dira sortze prozesu horiek?**

—Sorkuntza prozesuak oso go-



“Dantza bertikala nire pasioa da, eta egun nire profesioa”

gorrak izaten dira. Nire kasuan sorkuntza baten atzean bakardade handia dago, barrura begira denbora asko pasatzen dut, idazten eta ideia hori nola aurrera atera pentsatzen, bai artistikoki, bai ekonomikoki.

Sorkuntza koreografikoak naturan egitea maite dut, baina azkenaldian *site specific*-en sorkuntzetan espazio arkitektoniko ezberdinetan bertan sortzen egotea oso interesgarria izan da.

—**Dendu, Harria Herria, Geure(R)a dira sortu dituzun ikusgarri horietariko batzuk. Zeintzuk dira sakontzen dituzun gaiak?**

—Bai, hauek dira orain biran ditugun ekoizpenak: *Harria Herria*, *Geure(R)a* eta *Dendu*. *Dendu* TxalapArt ekoiztetxearekin eta Oreka TX batera sortu eta ekoiztu genuen.

Dimegaz eta Harrobi Dantza Bertikalaren sorkuntzak zutaberik nagusiak, bai ikus-entzuzkoetan bai arte eszenikoetan, euskara, emakumearen irudia, memoria historikoa eta euskal kultura dira.

Horiek guztiak dantza bertikala edota dantza esekiaren bidez uztartzen ditugu, arte diziplina ezberdinekin fusionatuz.

—**Bi aldiz izan zara finalista MAX Sarietan, eta ohorezko aipamen asko jaso dituzu zure ibilbidean.**

—Harrigarria benetan. Jasotako sariak eta aipamenak ez dituzu inoiz espero. Bai Dimegaz-en ikus-entzuzkoak eta ekoizpenak, bai Harrobi Dantza Bertikalaren zuzeneko emanaldiak sariak jaso dituzte, eta horrelakoak etortzen direnean sekulako bultzada sentitzen da.

—**Formakuntzak, eta tailerrak mendian eta frontoietan antolatzen dituzu, ezta? Zein helburu-ekin?**

—Bai, oso gustukoa dut dantza bertikalak eskaini didan arlo hau. Jarduera artistikoaz gain, dantza bertikalaren bidez publiko ezberdinetara helteko, eta hauek gure kultura eta hizkuntzarekin sensibilizatzeko asmoz *Dingilizke* (<https://www.dimegaz.eus/dantza-vertikala/>) egitasmoa sortu nuen. Honen bitartez, dantza bertikala edota dantza esekia ezagutzeko edo honetan trebatzeko aukera eskaintzen da.

Urtean zehar, Gernikan eta Gauegiz Arteagan, ikastaro trinkoak eskaintzen ditut, eta intentsiboak hainbat lekutan, bai frontoietan, bai mendi txokoen. Harrobi ederra sortzen ari gara elkarrekin.

—**Duela aste batzuk, Amurrio Antzokian Atxine izeneko pieza berria estreinatu zenuen. Azaldu**

zertan den pieza ikusgarri hori?

—Benito Lertxundiren *Allabizkarko* kantuan inspiratu nintzen *Atxine* piezaren sorkuntzarekin abiatzeko. *Atxine* *performance* eta dantza esekiaren arteko fusioa da. Pieza honetan ez dut paretara erabiltzen eta atzeko arnesarekin dilin-dantzan azaltzen naiz. Objektu baten eta dantzariaren arteko elkarrizketa bat da, oso emozionala, eta indar bisual handikoa.

Paula Olaz konpositoreak sorkuntza soinu espazioan tun-tuna edo txirula bezalako doinu tradizionalak soinu industrialagoekin eta modernoekin topo egiten dute. Emakume bat eta bere buruko eszena agertzen dira. Jaiotzan, nerabezaroa, bizitzan izaten ditugun gerrak agertzen dira, eta zahartzaroan dugun karga emozionalari erreparatzen dio.

Neure amamaren omenez egindako emanaldia da, berak euskararen, euskal kulturaren eta mitologiaren transmisioa egin zidan. Asko eskertzeko diot.

—**Beste ekoizpen edota sorkuntzaren bat ikusiko dugu urtea amaitu baino lehen?**

—Urtea amaitu baino lehen enkargu bat egin didate, hamar dantzariarekin *site specific* labur eta berezi bat sortzeko. Irailean sorkuntza koreografikoan sartuko naiz. Niretzat oso polita izango da, Harrobi Dantza Bertikalako dantzariak gain atzerriatik bost dantzari ekarriko ditudalako. Dantza bertikala aitazindariekin kanpoan ikasten hasi nintzen, bertan, *new generation* dantza-

ri asko ezagutu izan ditut, eta egun eurekin harreman sendoak mantentzen ditudanez, berriek proiektuan sartzea oso ederra izango dela pentsatu nuen, berriro batzuk holako *site specific* batean elkartzea.

Horretaz gain, Amaia Lejarreta *Art-en MADA* proiektuan lanean nago. Proiektu hau aurrera ateratzeko Dimegaz-ek ekoizle ardura hartu du, eta finantzaketa bila hasi naiz. *MADA bodypaint* a, dantza esekia, bisualak eta Inés Osinagaren zuzeneko musika fusionatzen ditu. Ilusio handia egiten didan proiektua da, *Atxine* eskultura batekin dantzatzeko aukera izan dut, eta orain *MADA*rekin zuzeneko nire gorputza margotuko dute dantzatzeko dudana bitartean. Arte plastikoa, dantza bertikala edo dantza esekia fusionatzea biziki maite dut.

Harrobi Dantza Bertikalera-ko beste proiektu bat idazten nabil, baina hau ez da urte amaierarako egongo. Bien bitartean sortuta ditugun ekoizpenak zabalitzen ditut. Memento honetan, *Geure(R)a* eta *Atxine* bana-keta prozesuan daude, eta Dimegaz-ekin *Haize Lerroak* dokumentala amaitzen ari naiz, abenduan, Bilboko BBK Mendi Film festibalean aurkezteko asmoz.

Orain pausuz pausuz, proiektu bakoitzari behar duen denbora eskaintzen. Baina sortzen jarraituko dut, euskara, euskal kultura eta memoria historikoa zabalitzen jarraitzeko.

Juanra Madariaga